



# Taldeentzako entseguetarako lokalak prest egongo dira irailean

Ongarai auzoan kokatuko dira musika taldeen-tzat Udalak erakitzen diharduen entseguetarako lokalak. Guztira 400m<sup>2</sup> izango dituzte lokalek, 6 gela egongo dira eta irailerako lanak bukatuta egotea espero da.



**U**daren bueltan egongo dira prest herriko musika taldeen entseguetarako lokalak, Udalaren aurreikuspenen arabera. Obrak otsailean hasi ziren eta 6 hilabete eta 3 aste epea dute bukatzeko. Beraz, iraila edo urrirako asko jota lokalak martxan egon beharko lirateke.

Entseguetarako lokalak Zeramika Eskola zegoen lekuan kokatuko dira, futbol zelai berriaren azpian, eta proiektua aurrera eramate-

ko eta taldeen beharretara benetan egokitu ahal izateko, taldeekin elkarlanean aritu da Udala.

Eraikin berriak bi bloke izango ditu eta bata bestearen atzeko aldean kokatuko da. Honek itxaron gela txikia izango du eta intsonorizaturako 6 gela. Hauek, 18 talderi zerbitzua eskaini ahal izango die txandaka, nahiz eta herrian 10 edo 12 talde inguru dauden, Udalaren arabera. Proiektuaren aurre-

kontua 551.000 eurokoa da.

Behin eraikita, taldeak izango dira lokalen kudeaketaren arduradun zuzenak eta horretarako inguruko herrietan dauden lokalen kudeaketa mota kontuan izango dute.

Egun, musika talde batzuk Eibarko Legarreko lokaletara joan behar izaten dute entseguak egiteko eta Udalak euren alokairua ordaintzen

du. Proiektu honen bidez, berriz, herrian geratu ahal izango dira.

Ongarai auzoko inguru hauetan, gazteentzako gunea sortu nahi da, bai aisialdi zein kirolerarako. Horretarako Betiondoko kirol instalazioei eta futbol zelaiari, skate-parka gehitu zitzaion eta orain, entseguetarako lokalak. Eraikin berri honen gainean plaza txikia egingo da.

## "MENDIOLA"

Jatetxea


Erdikokale, 19  
Tfno. (943) 17 22 43  
ERMUA (Bizkaia)

EGUNEKO  
MENUA  
ETA KARTA  
ERARA

## Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com



## PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak
- toldoak

Erakusketa berria:  
Karabixa, 1  
943 17 98 60

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41



## ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17  
48260 ERMUA